Irungo euskarazko hamabostekaria

Irunero 378

Uztailak 15, 2020

2 Irun Atzo Irun Gaur
3 Berri laburrak
4 Udako ekintzak Irunen
5 Turismoa Bidasoan
6 18cm erakusketa eta lehiaketa
7 Ribera Bekak
8 Kirolak: Emakume Master Cup
9 Kirolak: Udalekuak BAT
10 Kolaborazioa: Ainara Maia
11 Haurren lanak / Denbora-pasak
12 Gazteen lanak
13 Beti gazte: Gaztelekuko ekintzak
14 iGazte
15 Agenda

Anaka kalea, 8 - IRUN 943 667780

caser residencial

GURE AITONA-AMONEN ONGIZATEA HELBURU

Egonaldi iraunkorrak eta aldi baterakoak

Zubieta, 121 - HONDARRIBIA 943 647169

ZER GERTATU ZEN IRUNEN ORAIN DELA 100 URTE?

1918. urteko uztailaren 14ean argitaratutako "El Bidasoa" aldizkariaren zenbakia duela mende bat gutxi gorabehera Irunen albiste ziren gertaeren erakusle bikaina da. Aldizkariaren lehen artikuluan "R.I" hizkiez sinatutako artikuluane hirian estalitako parkeak eraikitzea eskatzen da, haurrek euskal kostaldeko eguraldi kaxkarrari aurre egin ahal izateko. "Si yo fuera cafetero..." titulua daraman idatzian bandak igande arratsaldeetan Pi y Margall plazan eskaintzen dituen kontzertuetako giroa aipatzen da. "La moral ultrabaja" tituluarekin, berriz, festetako "corre-callesean" zehar gertatutako nahasmena salatzen da. Jarraian, "De todo, una miaja" izenburuarekin gai ezberdinen inguruko gogoeta eta bitxikeriak biltzen dira. Hurrengo idatzian Hondarribiko hondartzak udaran eragindako mugimendua aipatzearekin batera, Colón pasealekua asfaltatzeko egindako lanen berri ematen da.

Remigio Peña baritonoak Bella Artes antzokian eskainitako kontzertuaren kronika irakur daiteke aldizkariaren bigarren orrialdearen hasieran. Mañuelek Elgorriaga gozotegiarekin lotutako istorioa partekatzen du zenbaki honetan "El Bidasoa" aldizkariaren irakurleekin. Kirol kronikan, aurreko astean egindako zinten lasterketa izeneko txirrindularitza probaren emaitzak aipatzen dira. Ondoren, Real Unión eta Gijón taldeen artean jokatuko den partiduaren xehetasunak azaltzen dira. Aldizkariko hurrengo bi idatzietan Irun eta Elizondoko musika bandek Iruñeko Banden Txapelketan parte hartuko dutela aipatzen da, lehiaketaren emaitzak oraindik ezagutu ez arren.

"Hace años ..." atalean aspaldiko albisteak errepasatzen dira, ostean, "Notas Municipales" atalean udal bilkurako azken erabakien laburpena argitaratzen den bitartean. "A Mañuel" titulua daraman gutuna eta "Ecos de Sociedad" eta "Noticias" atalek osatzen dituzte aldizkariaren 150. zenbakiko azken artikuluak.

ARGAZKIAK:
G2236: Pi y Margall plaza Gerra Zibilaren aurretik.
G38506: Elgorriaga Gozotegiko erabiltzaileak, Colón pasealekuan kokatuta, XX. mendearen hasieran.
G25890: Irungo Sargia parkea.

IRUNERO

Erredakzioa eta maketazioa:
Ainara Berges
Joseba Arozena

erredakzioa@irunero.eus
irunero@irunero.eus

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Publizitatea:
Amaia Terrazas
Ion Otxoa
Joseba Arozena
(jarozena@irunero.eus)

Diseinua eraberritzea:
Andrea Gomez Arocena

Inprenta:
ZEROA MULTIMEDIA S.A.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua:

Argitaratzailea:
837 comunicación y publicidad S.L.
www.837comunicacion.com

ISSN: 1134-0606

Lege gordailua: SS-230-94

Tel: 943042052

Webgunea: irunero.eus

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Hiriko merkataritza eta ostalaritza bultzatzeko erosketa bonoak

Irungo Udalak Irun Aurrera bonoak aurkeztu ditu, alarma egoerak eragindako geldialdi ekonomikoaren ostean, gertuko merkataritza eta ostalaritza sustatzeko helburuarekin. Udalak martxan jarritako kanpainara batu diren saltoki, taberna zein jatetxeetan hiritar irundarrek bono hauek erabiltzeko aukera izango dute.

Guztira, 15.000 izango dira abuztuaren 31era arte erabilgarri izango diren bonoak. Berezitasun gisa, bonoek ez dute inolako formatu fisikorik izango eta deskontuak erabili ahal izateko, hiritarrek NAN zenbakia eman beharko dute denda bakoitzean. Programa informatiko baten bitartez kontrolatuko da bonoen erabilera.

Bono bakoitzak 10 euroko balioa izango du. Bonoak erabili ahal izateko Irunen erroldatua egoteaz gainera, 16 urtetik gora izatea ezinbestekoa izango da. Irundar bakoitzak 10 bono erabiltzeko aukera izango du eta gehienez denda berean 2 bono erabili ahalko dira. Merkataritzaren kasuan, 30 euroko erosketa minimo bat egin beharko da bonoak erabili ahal izateko, bezeroak soilik 20 euro ordainduko dituelarik. Ostalaritzaren kasuan, berriz, erosketa minimoa 20 eurokoa izan beharko da eta bezeroak 10 euro ordainduko ditu bakarrik.

Era horretan, ezingo dira pertsona ezberdinen bonoak elkartu ordainketa bakarra ordaintzeko. Hau da, erosketa berean pertsona bakar baten bonoak erabilia ahalko dira soilik. Gainera, ekimen honetatik kanpo gelditzen dira bakarrik edari alkoholikoen kontsumoa helburutzat duten erosketak.

Ekimenera atxikitutako 100 saltoki baino gehiago

Bidashop eta Mugan elkarteen lankidetzari esker, hiriko saltoki guztiei ekimenera batzeko oinarrizko informazioa helarazi zaie, bonoen erabilera kontrolatzen duen aplikazio informatikoa arazorik gabe erabiltzeko aukera izan dezaten. Guztiz, 137 saltokik izena eman duten Irun Aurrera bonoen ekimenean parte hartzeko. Horrela, ekimenean parte hartzen duten saltokiei bereizgarri bana banatu zaie, Irun Aurrera Bonoen kanpainako partaide direla adierazteko. Ekimenera atxikitutako saltokiak babesteko, bezeroek erabilitako bonoak astero trukatu ahal izateko lanean ari da udala, horrela, kanpainaren amaierara itxaron gabe, saltzaileek dirua aste batetik bestera berreskuratzeko aukera izan dezaten.

Irun Aurrera bonoen kanpainak 150.000 euroko aurrekontua du eta udazkenean bigarren bono kanpaina bat martxan jartzea aurreikusita dago. Ekimenera Irungo saltoki txiki eta ostalaritza establezimenduek batzeko aukera izan dute, 400 m2-tik gorako elikagai eta edarien dendak, gasolindegiak, estankoak eta enpresa handien filialak edo ezarpen nazional edo nazioarteko handiko enpresak kenduta.

Aurreko ekintzak

Aurretik Irun Aurrera ekimenaren barruan, konfinamenduan zehar “Irun Etxetik” izeneko lehiaketa batzuk martxan jarri ziren sare sozialen bitartez. Lehiaketa horietan 255 erosketa-txartel banatu ziren 6.500 euroko aurrekontuarekin, hiriko saltoki eta ostalaritza establezimenduak sustatzeko helburu bera jarraituz.

“Erosi eta ikasi Irunen” diru-laguntzen 7. edizioa martxan jarri du Irungo Udalak

Irungo Udalak “Erosi eta ikasi Irunen” diru-laguntzen 7. edizioa martxan jarri du 2020-2021 ikasturtera begira hiriko familiei eskolako materialen erosketan laguntzeko. Diru-laguntzaren eskaera egiteko epea uztailaren 2an ireki zen eta irailaren 30era arte zabalik egongo da. Diru-laguntzak eskuratu ahal izateko erosketak Irungo establezimenduetan egitea ezinbestekoa izango da.

Haurrak Derrigorrezko Hezkuntzan (Lehen Hezkuntzan edo Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan) egoteaz gainera, Irunen erroldatuta egotea beharrezkoa izango da laguntzen esakaera egin ahal izateko. Gainera, Irungo saltokietan egindako erosketak egiaztatzeko Hezkuntza arlotik gogoratu da erosketen fakturak eskatzea eta gordetzea garrantzitsua dela, berez beharrezkoak izan ez arren, eskaera burutzeko prozesuan zehar erosketen egiaztagiriak aurkeztea gerta daitekeelako.

Aurtengo “Erosi eta ikasi Irunen” programak 200.000 euroko aurrekontua izango du. Juncal Eizaguirre Hiri Bultzadarako Ordezkariak adierazi duenez, “hiriko familien gastuak laguntzeaz gainera, bertako merkataritza bultzatzeko helburu bikoitza duten diru-laguntzak dira”. Horrela, diru-laguntza hauen bitartez hiriko saltokietan zein hezkuntza zentroetan eskolako materialen erosketarekin lotutako gastuen ordainketa laguntzeko helburua dute, ekainaren 22tik irailaren 30era arte egindako erosketetan. Rebeca González Hezkuntza arloko ordezkariak gogoratu duenez, “ eskaerak lehenbailehen egitea gomendatzen da”.

Laguntzen esleipen eta eskaera

Diru-laguntzen esleipena Familia Unitatearen errenta mailaren arabera egingo da, horretarako, hiru tarte ezberdin bereziko direlarik. Hortaz, 125, 100 eta 75 eurotako diru-laguntzak banatuko dira. Joan den urteko laguntzen zenbatekoarekin alderatura, tarte bakoitzeko diru-laguntzak 25 euro igo dira.

Eskaera bi eratara egin ahalko da. Batetik, Irun Txartelaren bitartez 24 orduko HAZ Egoitza Elektronikoaren bidez edo, bestela, Autozerbitzu Terminaletan. Eskaera egiteko unean fakturak edo erosketak tiketak eta laguntza jasotzeko kontu korronte zenbakia eskura izatea nahikoa izango da. Hortaz gain, laguntzak kudeatzerako orduan laguntzarik behar izanez gero, hiritarrek 010 telefono-zenbakira deitzeko aukera izango dute. Hortaz gain, Covid-19ak eragindako egoeraren ondorioz, diru-laguntzen eskaera lehenbailehen egitea eskatzen da, irailean eskaera egiteko epe amaiera iristen denean jende asko pilatzea saihesteko.

ANTXETA
IRRATIA
90.5 / 89.7 FM

Olaizola
INMOBILIARIA AGENTZIA
Salmenta-Alokairuak
Promozio berriak
Aholkularitza
Beraketa kalea, 17 • 20302 IRUN • Tel: 943 626585
info@inmobiliariaolaizola.com
www.inmobiliariaolaizola.com

Udara Irundik atera gabe gozatzeko proposamenak

Oiasso Erromatar Museoa

Oiasso Erromatar Museoak hainbat ekintza antolatu ditu aurtengo udako hilabeteetarako. “Kostaldeko euskal sukaldaritza. Erromatarren garaitik abangoardiara” erakusketaz gainera, uztaileko eta abuztuko ekintzen programa askotariko bisita gidatuez osatuta egongo da, publiko ororentzat pentsaturik egongo direnak.

Oiasso Erromatar Museoa igandeko goizeko 11:00etan “Tour Irun Roma” izeneko ibilaldia antolatzen du. Honela, “Tour Irun Roma” (TIR) aplikazioaren bidez, hiriko erromatar garaiko aurkikuntza arkeologikoak ezagutzeko aukera eskaintzen du. Ibilbidean zehar, Ama Xantalengo nekropolian sartzeko aukera izango dute bisitariek, era honetan, Oiasso zaharreko hileta-errituak zehaztapen handiagoarekin ezagutu ahal izateko.

Udako hilabeteetan zehar, halaber, Irugurutzetako Labeak bisitatzeko aukera eskainiko da berriro, hiri erdigunetik mehatze-eremura tren berdean egingo diren bidaiekin. Bisitak ostiral eta larunbatetan egingo dira, goizeko 11:00etan eta arratsaldeko 17:00etan. Irugurutzetako meatze-ingurunea “Pirinioetako Burdinaren Ibilbidearen” parte da. Irugurutzetan aitzinako garaietan irekitako galeriak eta minerala kaltzinatzeko Euskadiko bateriarik garrantzitsuenetako bat bisitatu daiteke.

Uztailaren 7tik aurrera, berriz, Oiasso museoak astero asteartetan 11:00etan eta ostegunero 18:30etan “Kostaldeko euskal sukaldaritza: erromatarren garaitik abangoardiara” erakusketa bisita gidatu baten bitartez ezagutzeko aukera eskainiko du. Erakusketa duela gutxi inauguratu da eta irailaren 30era arte bisitatu ahalko da. Bisitetan gehienez 15 lagunek parte hartuko ahalko dute. Bisita gidatuan zehar maskarak erabiltzea derrigorrezkoa izango da eta, horretarako, aldez aurretik bisitaren data zehazteko erreserba egin beharko da. Bisita gidatu bakoitzaren tarifei buruzko informazioa www.oiasso.com webgunean, 943 63 93 53 telefono zenbakira deituz edo info-oiassomuseo@irun.org helbidera idatziz eskuratu ahalko da.

Bisita gidatuez gainera, hurrengo ostiralean, uztailaren 10ean, arratsaldeko 19:00etan mahai-ingurua izango da, Alameda jatetxeko Gorka Txapartegi sukaldariarekin eta Mertxe Urteaga arkeologoaren kolaborazioarekin. Sukaldaritzaz eta historiaren arteko loturaz mintzatuko dira mahai-inguruan, erakusketako komisarioa den Luisa Lópezen parte-hartzearekin. Ekintzarako sarrera doakoa izango da eta 30 entzulerentzako lekua egongo da. Maskara erabiltzea nahitaezkoa izango da aretora sartu eta mahai-inguruan zehar.

Eskaintza horrekin, museoak udako ohiko programa berreskuratzeko beste urrats bat eman du. Gainera, aurten, museoko erakusketa iraunkorrerako sarrera-tarifek 2+2 bonoaren berritasuna izango dute; izan ere, bi helduk eta bi haurrek osatutako taldeek %40ko murrizketa izango dute.

Lapurriturriko informazio-puntua

Aiako Harria Parke naturalean dagoen eta Irungo Udaleko Garapen Iraunkorreko Arloak kudeatzen duen Lapurriturri informazio-guneak ere, ekainaren 6ean ekin zion denboraldi berriari. Covid-19 pandemiak eragindako Alarma egoeraren ondorioz, informazio-guneak Aste Santurako ateak irekitzea aurreikusita zegoen arren, ekainera arte atzeratu da informazio-puntuaren irekiera. Izan ere, fase honetan baimenduta daude naturan egiten diren turismo jarduerak.

Informazio-gunean ematen den zuzeneko arreta zerbitzuan eta antolatuko diren jardueretan, osasun erakunde eskudunek unean-unean ezartzen dituzten higiene- eta segurtasun-neurriak hartuko dira, betiere segurtasun-distantziak errespetatuz. 2020. urteko kanpainarako ekainaren 6tik urriaren 31 arte informazio-gunea larunbatetan, igandeetan eta jaiegunetan irekita egotea proposatzen da, 10:00etatik 14:00etara. Aurreko urteetan egin den bezala, 2020ean ere informazio-puntuari lotutako doako txangoak antolatuko dira, 20 laguneko taldeetan. Antolatutako jardueretarako izen-emateak txangoaren aurreko asteetan irekiko dira. Hauek dira denboraldi honetarako aurreikusten diren txangoak: Gotor eta gerren artean, Narrastiak, Meatzaritza, izarrak behatzea, orientazio-martxa, marrazketa-pintura eta mikologia.

Lapurriturriko informazio guneak hamar urtetik gora daramatza Aiako Harrietara hurbiltzen diren bisitari guztiei parkearekin lotutako informazio zabaltzen, eta, horretarako, hainbat jarduera antolatzen ditu denboraldi osoan. Udaberrian, udan eta udazken hasieran jarduerak programatzeaz gainera, informazioa eskaintzen die bisitariei, paperean, eta parkeari buruzko azalpenak ere ematen zaizkie bertan, inguruko turismo eskaintzari buruz eta bost ibilbide tematikoei buruz (elur zuloak; meatzaritza; ikazkintza; gerrak; eta flora, fauna eta ura). Iazko urtean instalazioetan asistentzia marka hautsi zen, izan ere, 1.652 lagun pasa ziren informazio gune horretatik.

Hondarribia-Irun Turismo webgunearen itxura berritu da erronka berriei aurre egiteko

Bidasoa bizirik elkartearen bitartez Irun eta Hondarribiko udalek Hondarribia-Irun Turismoaren webgunea berritu dute eskualdearen promoziorako liburuxkekin batera. Berrikuntzarekin webgune eta liburuxka bisual eta freskoagoak lortu nahi izan dira. Informazioa gaztelania, euskara, ingeles eta frantsesez jasotzen da bertan.

Turismo webgunean lurraldeko bisitarientzako interesgarria izan daitekeen informazioa guztia biltzen da. Horrela, Irun eta Hondarribian bisita daitezkeen tokien inguruko informazioa partekatzeaz gainera, bisitariek eskualdean egin daitezkeen kirol-jarduera, jarduera nautikoak, jai, ikuskizun eta natur ingurunearen inguruko informazioa aurkituko dute. Hortaz gain, "Non jan" izeneko atalean, Irun eta Hondarribiko ostatu guztien zerrenda aurkituko dute, eskualdeko taberna eta jatetxeen inguruko informazio zehatzarekin.

Webgune berriak eskualdeko turismo-liburuxka guztiak PDF formatuan deskargatzeko aukera eskainiko du, bi hirietako turismo-bulegoen datuak biltzeaz gainera. Era berean, Bidasoa eskualdeko bisitarientzat interesgarriak izan daitezkeen beste webguneen loturak publikatuko dira bertan, adibidez, Irun Berdea, Erdi Aroko Hiri eta Hirien Sarea edo Gipuzkoa Turismoa webguneen helbideak. Miguel Angel Páez Bidasoa bizirikeko presidentearen hitzetan, "Bidasoa eskualdearen eskaintza momentu honetan bisitariek bilatzen duten turismo motarekin guztiz bat egiten duela uste dugu".

Turismo webgune berriak orain arteko webgunearen esteka berbera mantenduko du, baina, irudi berrituarekin. Miguel Angel Páez Bidasoa bizirik-eko presidenteak azaldu duenez, Internetek hainbesteko garrantzia hartu

"Irunek eta Hondarribiak potentzial turistiko handia dute eta aprobetxatu egin behar dugu"

Miguel Angel Páez, Bidasoa bizirikeko presidentea

duen mundu honetan, Bidasoako Turismo webgunea eguneratzea beharrezkoa zen. Honela, emaitza freskoagoa eta ikusgarriagoa lortuz, Bidasoa eskualdearen edertasun guztia erakusten duten argazki eta bideoak erakusketako aukera eskaintzen du. "Irunek eta Hondarribiak potentzial turistiko handia dute eta aprobetxatu egin behar dugu", Bidasoa bizirikeko presidenteak azaldu duenez.

Era berean , Maria Serrano Bidasoa bizirikeko presidenteordeak nabarmendu duenez, aisialdiko turismoaz gainera, Bidasoako Turismo webgune berria publiko profesionalarentzat ere pentsatuta dago, hau da, negozio turismoarentzat. "Negozio turismoak urte osoan zehar bezeroak erakartzeko aukera emango digula uste dugu", gaineratu du Maria Serrano elkarteko presidenteordeak.

Eskualdearen promoziorako liburuxkak

Aurreko urteetan zehar erabilitako eskualdearen promoziorako liburuxkak berrargitaratu ordez, aurten liburuxken edizio guzti berritua sortzea erabaki da. Honela, Bidasoaren promoziorako liburuxka berriek ukitu bisualagoa dute, eskualdea inguratzen duten altxorrak erakusteko leku esanguratsuenen argazki askoz osaturik daudelako. Gainera, eskualdearen sustapen-bideo bat egin da, bi hirietako leku adierazgarrienetan hartutako irudiekin.

Liburuxkekin batera, Irun eta Hondarribia hirietako planoak berritzeko aukera aprobetxatu da. Plano berriak aurrekoak baino handiagoak izateaz gainera, interesguneak errazago ezberdintzen dira. Hortaz gain, orain bi hirietako ostatu guztiak erakusten dira, landetxeak eta aurretik agertzen ez ziren beste zerbitzu eta establezimenduen inguruko informazio eskaintzeaz gainera. Promozio liburuxkak zein planoak dagoeneko Irun eta Hondarribiko Turismo bulegoetan eskuragarri daude.

"Negozio turismoak urte osoan zehar bezeroak erakartzeko aukera emango digula uste dugu"

Maria Serranoa, Bidasoa bizirikeko presidenteordea

Ostalaritzarentzako denboraldi berezia

Azken asteetan zehar, normaltasun berria estreinatzearekin batera, Irun eta Hondarribiko hotel eta ostalaritza-establezimendu gehienek ateak ireki dituzte berrio. Alarma egoeraren zati handi baten sektorea guztiz geldiarazi ostean, ostalaritzak eta hotelen sektoreak hilabete gogorrei aurre egin behar izan diete.

Irungo Atalaia hoteleko María Fernández de Valderramak momentuko egoeraren ziurgabetasunak azaldu ditu. Hotela berriro martxan jarri zenetik bisitari gehienak pasaeran dagoen jendea dela azaldu du, izan ere, hegaldi eskasiaren ondorioz, Europan bizi diren portugaldar eta espainiar etxera autoz itzultzea erabaki dutelako. Atalaia hoteleko María Fernández de Valderramak adierazi duenez, "egunez egun bizi gara, erreserba asko bertan behera gera daitezkeela jakinda".

Hotelen sektoreaz gainera, azken hilabeteetako geldialdiak ostalaritzan eragin nabaria izan du. Irungo Danako jatetxeko David Rodriguezek adierazi duenez, Danako jatetxea konfinamendua arintzeko faseek ahalbidetu bezain laster ireki zuten, baina, lehen asteetan sekulako eromena suposatu zuen errespetatu beharreko arau berri guztietara egokitzea. "Uztaila eta abuztuko hilabeteetan jendeak ohi baino gutxiago bidaiatuko duenez Irunen bizitza gehiago egitea espero dugu eta horrek mesede egin diezagukeela uste dugu", gaineratu du David Rodriguez sukaldariak.

18 zentimetrora mugatutako arte eta erakusketaren hirugarren edizioa

“18 CM” programaren 3. edizioa aurkeztu dute Ricardo Catalán eta Ana Zubikoak , Juncal Eizaguirre Kultura arloko ordezkariaren konpainian. Lehiaketan onartzen diren obren neurrien ondorioz, ezaugarri zehatz eta bereziak dauzkan lehiaketa da. Lehiaketan parte hartu nahi duten artistek lanak uztailaren 15etik 30era aurkeztu beharko dituzte Amaia Kultur Zentroan.

Ricardo Catalán eta Ana Zubikoak “18 CM” programa 2018. urtean martxan jarri zuten artearentzako eszenatoki berriak sortzeko helburuarekin. Ekimen honen bitartez artearen edozein diziplina lantzen duten artistei haien lanak erakusteko aukera eskaintzeko modua topatu zuten. Programak mota guztietako artistak onartzen ditu, hau da, zaletuak, hasiberriak, amateurrak edo artista profesionalak. Juncal Eizaguirre Kultura arloko ordezkariaren hitzetan, “Amaia Kultur Zentroa, aretoko erakusketa erregularren programaren barnean, “18 CM” bezalako programei atsegin handiz aretoko ateak irekiTtzen dizkiegu hiritarren artean ezagutarazteko”.

Aurtengo erakusketarako antolatzaileek “1920ko Hamarkada Zoriontsua ” gaia aukeratu dute. Ana Zubikoa 18CM programaren antolatzaileak adierazi duenez, “erakusketarako aukeratutako gaia oso gai zabala dela uste dugu, artisten sormenaren arabera emaitza amaigabeak izan ditzakeena” Gaiaren aukeraketarako programaren antolatzaileak CBA Udal Liburutegiko koordinatzaileekin ados jarri dira, izan ere, Udal Liburutegiak 2020. urtean zehar duela mende bat bizitako emankortasun ekonomiko handiko garaiarekin lotutako ekintza ugari antolatuko dituelako.

Ricardo Catalánek azaldu duenez, “konfinamenduan zehar artistak etxetik lanean aritu direla ikusi dugu eta erakusketa sorkuntza guzti horiek erakusteko aukera bikaina iruditzen zaigu”. Ricardoren hitzetan alarma egoerarekin 18CM programaren aurtengo edizioa zalantzan ikusi zuten, baina, segurtasun neurri guztiak errespetatzeko modua topatu zutenean, proiektuarekin aurrera jarraitzea erabaki zuten. Juncal Eizaguirre Kultura arloko ordezkariak adierazi duenez, “pixkanaka eta segurtasun neurri guztiak errespetatuz hiriko agenda kulturala hitzorduak berreskuratzen hasi da udako hilabeteetara begira”.

18 zentimetroetatik harago

Hortaz, lehiaketa lanen bat aurkezteko baldintza nagusiak, aurtengo deialdirako aukeratutako gaiarekin nolabaiteko lotura izateaz gainera, lanaren neurriek 18 zentimetroak errespetatzea izango da. Artista bakoitzak lehiaketara gehienez 3 lan aurkeztu ahalko ditu, beti ere, 1920ko Hamarkada Zoriontsua gaia errespetatuz.

Pintura, serigrafia, grabatu eta argazkiak aurkeztu ahal izateko, lanen altuera edo zabalerak gehienez 18 zentimetro izan beharko ditu, erakusketarako oinarri sendo baten gainean aurkezteaz gainera. Eskulturen kasuan lanaren dimentsioek ezingo dituzte 18 zentimetroak gainditu, ez altura, ez zabaleran eta ez sakoneran. Lan audiobisualek, berriz, 18 segundo edo minutu bat eta 18 segundoko iraupena izan beharko dute. Ricardo Catalánek azaldu duenez, “parte hartzaileei lehiaketaren oinarrietan zehazten diren arauak errespetatzea eskatu nahi diegu”. Izan ere, antolatzaileak azaldu duenez, aurreko urteetan onartutako obren neurriak gainditzen edo ozta-ozta betetzen zituzten lanak jaso izan dituzte, baina, aurten arauen betekizuna zorroztasun handiagoarekin kontrolatuko dela abisatu du. Dena dela, era guztietako teknikak erabiltzen dituzten lanak onartuko dira.

Lanen entrega

Lanak Amaia Kultur Zentroan López de Becerra kaletik sartuta entregatu beharko dira uztailaren 15etik uztailaren 30era. Aretoko harrera asteartetik larunbatera arratsaldeko 18:00etatik 21:00etara irekita egongo da eta igande eta jaiegunetan, berriz, 11:30etatik 13:30etara. Lanak behar bezala betetako izen-emate orriarekin batera entregatu beharko dira. Hortaz gain, lanekin batera artistek lanaren azalpen testu labur bat aurkezteko aukera izango dute. Lehiaketan abuztuaren 21ean 18 urteak beteta dituzten artistek parte hartzeko aukera izango dute.

Lehiaketara aurkeztutako lan guztien artean, antolatzaileek jasotako lanen kopuruaren araberako aukeraketa egingo du, lanen kalitatea, aniztasuna eta erakusketarako libre dagoen espazioaren arabera. Aukeratutako lanak abuztuaren 21etik irailaren 6ra bisitatu ahalko dira Amaia Kultur Zentroan. Informazio gehiago behar izatekotan, HAZ bulegoarekin edo Kultura arloarekin harremanetan jartzeaz gainera, interesdunek cultura@irun.org helbidera idatzi edo 943 50 54 07 telefono zenbakira deitzeko aukera izango dute.

“Konfinamenduan zehar artistak etxetik lanean aritu direla ikusi dugu eta erakusketa sorkuntza guzti horiek erakusteko aukera bikaina iruditzen zaigu”
Ricardo Catalán, 18CM programako antolatzailea

Lan sarituak

Lehiaketako lan irabazleak Donostiako Tamayo paper-dendan 180 euroko opari-txartela eskuratuko du, bi bidai opari-kutxekin batera. Hortaz gain, Tamayo dendak aurten kolaborazio berezia izango du lehiaketan, izan ere, artistek dendan lehiaketa honetarako bereziki sortutako neurri bereziko mihiseak eta bestelako oinarriak erosi ahalko dituztelako. Era honetan, egitasmo honen bitartez artistei lehiaketara lanak aurkezteko oinarri egokiak aurkitzeko lana erraztu nahi zaie.

Ribera beken edizio berriak muga, ikerketa kulturala eta arte garaikidearekin lotzeko aukera dakar

Proiektuak 2020. urteko deialdira aurkezteko azken eguna abuztuaren 3a izango da

Irungo Udaleko Kultura arloak jakinarazi duenez, Ribera Beken deialdi berriko oinarriak publikatu dira. Ribera Bekak bertako artistak, historiatzaile, antropologo, soziologo eta irakaskuntzaren munduko profesionalekin harremanetan jartzeko helburuarekin sortu ziren, elkarlanean ibaia, muga eta memoria historikoaren inguruko proiektua sortzeko.

Ribera bekek tamden formatua dute, hau da, lan-taldea bi perfil ezberdin daukaten pertsonez osatuta egon beharko da. Batetik, proiektuaren alde artistikoa eta, bestetik, ikerkuntzarekin lotutakoa. Juncal Eizaguirre Kultura arloko ordezkariak azpimarratu duenez, "Ribera kulturaren eta ikerketaren sustapenaren aldeko apustua da".

Juncal Eizaguirre Kultura arloko ordezkariak azaldu duenez, 2016. urtean beka hauen sorrerarekin Irungo Udalak lan-ildo berri eta zabal bat ireki nahi izan zuen. "Jardunaldi horretan arte garaikidea eta tokiko talentua izango ziren protagonista, eta, betiere, Bidasoa ibaia, haren memoria historikoa eta muga-kontzeptua protagonismoa izan beharko zuten", gaineratu du Irungo Udaleko Kultura arloko ordezkariak.

Orain arte proiektuko bigarren zatia antropologia eta historiarekin zerikusia zuten gaietara mugatuta zegoen, baina, aurtengo edizioan geografia, nazioarteko harremanak edo biologia bezalako gai zabalagoetara irekitzeko erabakia hartu da, beti ere, ikuspuntu humanizatua mantenduz.

Proiektuak aurkezteko epemuga

Bi bekek osatzen dute ekimena eta beka bakoitza 9.000 eurokoa izango da. Bekek 9 hilabeteko iraupena izango dute. Beken ondorioz artearen inguruko bi esku-hartze izango dira, eta Ribera 2020. urteko programan lanen aurrerapen batzuk ikus ditzakegu. Ribera bekekin lotutako oinarriak eta informazio guztia udalaren webean kontsultatu daiteke. Eskaerak ohiko edozein bide erabiliz aurkeztu ahalko dira, HAZ bulegoaren bidez edo egoitza elektronikoaren bidez abuztuaren 3ra arte.

Ribera Beken ardatzak

Ribera bekek mugaren eta Bidasoa ibaiaren ingurune geografiko espezifikoko ondare elementu ukigarri eta ukiezinak ezagutzen eta balioesten lagundu behar dute. Elementu arkitektonikoak, industrialak, interes historiko-sozialeko eta/edo antropologikoko puntuak ezagutzea baloratuko da, bai eta testuinguru-kontakizunak berrikustea eta eraikitzea ere (ondare materiala edo ukigarria).

"Ribera kulturaren eta ikerketaren sustapenaren aldeko apustua da"

Juncal Eizaguirre Kultura arloko ordezkariak

Pertsonen kontakizunak eta memoria ere kontuan hartu beharko dira (ondare immateriala edo ukiezina). Interes berezikoak dira hiriaren ondarea era berritzaile batean lan egiten dutenak eta baterako hausnarketarako prozesu irekietatik artikulatzen direnak, diziplina anitzeko planteamenduetarako oinarri batekin.

2019. urtean, ohikoa denez, bi proiektu izan ziren aukeratuak Ribera Beken deialdiaren barnean. Lehena, Rúben Mejuto Fernández eta Andrea Giraldo Sevillak sinatutako "Irungo ahozkotasunaren eta Memoriaren Kartografia: Emakumeak eta muga arteko nortasunak" proiektua. Bestetik, María José Noain eta Artitadetó elkartearen "Bidasoako kartografia emozionala" proiektua.

Uranzu pilotalekua Emakume Master Cup txapelketako finalen lekuko izan da

Ekainaren 28an 2020. urteko Eskuz Binakako Laboral Kutxako Emakume Master Cup txapelketako pilota goxua eta pilota mistoko finalak jokatu ziren Irungo Uranzu pilotalekuan. Pilota goxuko finalean Iera Agirrek eta Maite Ruiz de Larremndik Galeano ahizpak garaitu zituzten belaunaldiarteko lehian. Pilota mistoan, berriz, Leire Garai eta Olatz Ruiz de Larramendi izan ziren gairaile Olatz Arrizabalaga eta Gentzane Aldairen aurka jokatutako partiduan.

Txapelketa urtarrilaren 11ean hasi zen, baina, alarma egoeraren ezarpenarekin partidu guztiak bertan behera gelditu ziren, hasieran, martxoan egitekoak ziren finalak jokatzeko aukerarik egongo ote zen jakin gabe. Normaltasun berriaren hasierak, ordea, txapelketari amaiera emateko aukera eskaini zuen, ikusleek murriztutako edukierarekin harmailak betetzeko aukera izan zutelarik. Txapelketan guztira 94 pilotarik parte hartu dute. Pilota mistoraren kasuan 2020. urteko txapelketak ohi baino parte hartzaile gehiago izan ditu.

Pilota Goxua

Pilota goxuaren kasuan, Iera Agirre eta Maite Ruize de Larramendi nafartarrek Nagore Galeano eta Leire Galeano ahizpen kontra indarrak neurtu zituzten. Partiduaren hasieratik bikote nafartarrak alde nabaria atera zion Antzuolako ahizpek osatutako bikoteari eta, azkenean partidu amaieran aurkariek 22-7 puntu lortu zituzten. Partiduaren emaitzaz haratago, bi belaunaldien arteko norgehiagoka izan zen pilota goxuko finala. Izan ere, 32 urteko Iera Agirre eta 46 urteko Maite Ruiz de Larramendi beteranoek 15 urteko Nagore Galeano eta 13 urteko Leire Galeanoren aurka lehiatu baitziren. Partiduaren amaieran ETBko mikrofonoaren aurrean Iera Agirre jokalariak azaldu zuenez, "bi generazioen arteko lehia izan da partidua". Partiduaren emaitzak erakutsi zuenez, ordea, esperientzia gaztetasunari nagusitu zitzaion.

Pilota mistoa

Pilota mistoko finaleko partiduan Garai eta Ruiz de Larramendi gailendu ziren aurkari gernikar eta orozkotarraren kontra. Partiduaren hasieratik Leire Garai eta Olatz Ruiz de Larramendik alde nabaria atera zieten aurkariei, 9-0 puntuekin aurreratuz. Partiduaren erdialdera neurketa parekatu zen arren, bizkaitarrek garaipena urrutitik ikusi zuten 14-22 punturekin iritsi baitzen partidu amaiera. Olatz Arrizabalaga eta Gentzane Aldaiek pilota mistoan jokatutako lehen denboraldia zen.

"Bi generazioen arteko lehia izan da partidua"

Iera Agirre, Pilota Goxua txapelketako garailea

Leire Garai pilota mistoko txapelketako garaileak onartu duenez, "partidu amaiera iritsi eta garaipena lortu arte urduritasunak ez dira guztiz desagertzen". Pilota goxuan talde berean jokatu zuten ahizpez gainera, Emakume Master Cup finalek senide-arteko irudi bitxia utzi zuten. Izan ere, Maite Ruiz de Larramendi eta Olatz Ruiz de Larramendi izeba-ilobek podiuma partekatu zuten.

Irun finalen erdigunean

Borja Olazabal Irungo Udaleko Kirol arloko ordezkariak adierazi duenez, "Irungo Udalarentzat oso berri ona da Uranzu frontoian honelako txapelketak jokatu ahal izatea". Rebeca González Berdintasun arloko ordezkariak nabarmendu zuenez, "emakumezkoen kirolak geroz eta presentzia gehiago duela ikustea pozgarria da".

Kirol arloko ordezkariak azaldu duenez, finalak martxoan jokatzekoak ziren, baina, alarma egoeraren ondorioz txapelketa bertan behera gelditu zen. Berriro partiduak jokatzeko aukera zegoela ikusi zutenean, ordea, Kirol arloan finalaren antolaketa-lanak berreskuratu zituzten. "Hasieran finalak ikusleekin jokatu ahalko ziren jakin ez arren, azkenean, publikoarekin jokatuko zirela jakiteak asko poztu gintuen". Uranzu pilotalekuan 351 ikuslek izan zuten maskarekin partiduaz zuzenean gozatzeko aukera, jende asko pilotalekuaren kanpoaldean frontoira sartzeko sarrerarik gabe gelditu zen bitartean. ETBk zuzenean emititu zituen txapelketako finaleko bi partiduak, gainera normalean gizonezkoentzako erreserbatutako telebistaren parrilla zatian.

ESTUDIO FOTOGRAFÍA
GO VER™

Fernando Vergara
argazkilaria
Letxumborro hiribidea 100,2°
20305 Irun
943 840 113 - 647 930 484
www.fotogover.com
www.fotogoverbodas.com
info@fotogover.com

Ibon Muñoz, Bidasoa Atletiko Taldeko gerentea eta kirol-zuzendaria:

“Udalekuek adin bereko haurrekin dibertitzeko aukera emateaz gainera, kirola egiteko aitzakia bikaina dira”

Super Amara Bidasoa Atletiko Taldeak Udalekuak antolatzen ditu udako hilabeteetan zehar haurren dibertsioa eta kirola bateratzeko asmoz. 2020. urtean, ordea, Koronabirusak guztiz baldintzatu du Udalekuen antolaketa. Ibon Muñoz Bidasoa Atletiko Taldeko gerentea eta kirol-zuzendariak azaldu duenez, taldeak ekintzaren antolaketari eusteko modua topatu du egoerara egokitutako protokoloa sortuz.

Azkenean aurtengo udaran Udalekuak antolatzea lortu duzue?

Bai, konfinamendua arintzeko faseek aurrera egin ahala, Udalekuetarako prestatutako protokoloak onartuak izan zirenez, posible izan da. Izan ere, normaltasun berriak aurretik egin ezin ziren joko eta ekintza asko egiteko aukera ematen digu. Gauzak horrela, uztaileko 4 asteak beteta dauzkagu eta abuztuko lehen asteko tokiak betetzeko gutxi falta da.

Udalekuak antolatzeko ekintzaren planteamendua goitik behera aldatzea beharrezkoa izan da?

Bai, adibidez, monitore taldea indartu dugu, izan ere, egoera honetan haurrak gehiago kontrolatzea garrantzitsua iruditzen baitzaigu, segurtasun distantziak eta protokoloak betetzen dituztela ziurtatzeko. Hortaz gain, “Segurtasun Arduradun” izango den pertsona bat gehitu dugu lantaldera, materialak desinfektatu eta hamaiketakoak prestatzeaz arduratuko dena.

Taldeak osatzeko momentuan, taldeetako haur kopurua murriztea beharrezkoa izan da?

Aurten astero 70 haur izan ditzakegu gehienez, aurreko urteetan aste batean 90 edo 100 haur izan ditugun bitartean. Egoera dela eta kopuru maximo hori errespetatzea erabaki dugu, haurrekiko kontrola zorrotzagoa izan dadin.

Egoerara egokitutako ekintza eta jolasak antolatzea erraza izan zaizue?

“Taldeko jolasak banan-banan egokitu ditugu, haurren arteko kontaktu zuzena ahal bezain beste saihesteko”

Egoera honetan atletismoaren abantailetako bat orokorrean nahiko kirol indibiduala dela da, beraz, proba asko bakarka eta kontakturik gabe egiteko aukera ematen du horrek. Dena dela, dibertigarriak diren taldeko jolas asko taldeka egiten direnez, taldeko jolasak banan-banan egokitu ditugu, haurren arteko kontaktu zuzena ahal bezain beste saihesteko.

Aurreko urteetan ez bezala, aurten Udalekuetako ekintza guztiak Plaiaundin egingo dituzue?

Bai, aire zabalean gainera, bertan birusak intzidentzia txikiago duela suposatzen baita. Era honetan, autobusez egin ohi diren bidaiak saihesten ditugu. Polikiroldegiak bere neurri propioak dauzka, beraz, ia ezinezkoa litzateke haur guztiekin batera igerilekuan sartzeko aukera izatea.

Aurten jatetxean bazkaldu ordez, hamaiketako txiki batekin haurren egonaldia luzatzeko aukera eskaini duzue?

Bai, hamaiketakoarekin gurekin ordu bat gehiago gelditzeko aukera ematen diegu. Gainera, Iñigo Lavado eta Biribil jatetxeak duela gutxi ireki direnez, ez diegu erabilgarri duten espazioaren zati handi bat gure haurrekin bakarrik okupatu nahi.

Maskararen erabilera derrigorrezkoa da haurrentzat?

Maskarak kirol eremurako sarrera eta harrerako unean erabiltzen dituzte eta irteerako unea iritsi arte maskarak kentzen dizkiegu. Egun euritsuetan, ordea, ekintzak teilapean egiten direnez eta espazioa txikiagoa denez, maskarak erabiltzea derrigorrezkoa da.

“Neurri berri hauek, denboraldi luze batean behintzat, gure artean izango ditugula dirudi”

Ekintzaren antolaketa egokitu arren, jendea Udalekuetan parte hartzera animatu da?

Bai, hain zuzen ere, nahi duenak abuztuko hilabeterako libre dauden asteetan edo iraileko lehen astean izena emateko aukera du oraindik. Momentura arte 460 haurrek izena eman dute eta joan den urtean 535 izan ziren bitartean. Gurasoekin egindako bileretan adierazi digutenez, haien seme-alabek jarduera fisikoa egiteaz gainera, beste haurrekin batera dibertitzeko irriketan zeuden. Udalekuek adin bereko haurrekin dibertitzeko aukera emateaz gainera, kirola egiteko aitzaki bikaina dira.

Haurrak segurtasun neurri berriak errespetatzera erraz ohitu dira?

Lehenengo egunean protokoloa azaltzeko hitzaldia ematen diegu. Gainera, haurrak adin bereko taldeetan sakabanatuta daude eta ez dute inolako kontakturik gainontzeko taldeetako haurrekin.

Udalekuak irailetik aurrera klubak izango duen funtzionamenduaren aurrerapena dira?

Bai, normaltasun berriak bere horretan jarraitzen badu gaixotasunaren berragertzerik gertatu ezean, datorren denboraldiaren funtzionamendua nahiko antzekoa izango da. Beraz, neurri berri hauek, denboraldi luze batean behintzat, gure artean izango ditugula dirudi.

UDABERRIKO NOBEDADEA:
"OROIMINEZKO IGANDEAK"
Dakit argitaldaria, 2020

1996ko udazkenean joan nintzen Alemaniara eskolarteko truke bat probestuz, Irungo La Salle-n REM batxilergo-ikasketak amaitu eta selektibitatea egin ondoren, aipatu La Salle eskolak ikasturte oso bat Gifhorn hirian egiteko aukera eman baitzidan, Eusko Jaurlaritzaren orduko dirulaguntza bati esker.

Han hasi nintzen idazten nire egunerokoa, eta oharretan hartu nituen hango nire eta besteen bizipenak eta irakurritako literatura. 1996-97 ikasturtean han egon nintzen eta itzultzerakoan unibertsitatean hasi nintzen ikasten euskal filologia hizkuntzez eta literaturaz gehiago jakiteko irrikan.

Nire pasioa eta grina idaztea izan da betidanik, eta Alemanian idatzitako egunerokoa eta ohar-blokak hartuta, eleberri baterako gaia josten hasi nintzen hitzekin. Autobiografia dirudien arren, oroitu egia ez dela inoiz argitaragarri literaturan, eta beraz, ni ez naiz Kattalin, liburuko gazte protagonista, baina niretik ere pixka bat badu, nik bizitutakoa eta ikusitakoa baitaude eleberri honetan.

2007an aurkeztu nuen eleberri honetarako ideia eta lagin bat IGARTZA BEKETARAKO, baina ez zidaten eman; eta beraz, nire kabuz idazten segitu nuen nire eleberria eta bekarik gabe bukatu nuen esku artean duzun lan hau. 2015ean digitalki argitaratu zidaten eleberri osoa www.entreescritores.com web orrian, errelato erromantiko eta pertsonen arteko harremanen atalean haur eta gazte literatura genero literarioaren barruan.

Kontakizunean hiru pertsona elkarrekin gurutzatuko dira: lehenengo pertsona, tarteka hitanozko bigarren pertsona eta igandero gertatzen dena kontatuz hirugarren pertsona (elkarrizketak ere bai tarteka). Ez da eguneroko bat, eguneroko baten itxura izango du, baina igandero soilik idazten du Kattalin protagonistak berak bizitutakoa eta sentitutakoa; igandero azaltzen du narratzaileak edo idazle honek Kattalini gertatutakoak hirugarren pertsonan.

1996ko udazkenean hasi zen Kattalin euskal filologia ikasten Gasteizen, eta bertan bizitzen jarri. Noizean behin, Irulegi bere herrira joaten zen, familiarekin eta lagunekin egotera. Horietako joan-etorriko batean, bere urtebetetzeagatik egun batzuk Irulegi herri baxenabartarrean pasa eta gero, Iruñetik Gasteizera bidean doan trenean dago Kattalin. Trena bat-batean gelditu da iluntzean. Badirudi matxuraren bat gertatu dela. Kolpe batez bidaia-poltsa gainera eroriko zaio Kattalini eta argiak itzaliko dira. Argiak berriro piztean, bidaia-poltsa eskuetan izanen du Kattalinek eta treneko matxura konpondu bitartean, poltsa irekitzen du. Bertan, igandero idazten duen egunerokoa ikusten du, eta igandea izaki, idazten hasten da. Orduan, bere barneko ahotsak hitz egiten dio eta azkenerako idazteari utzi eta hasieratik irakurtzen hasten da, oroitzapenak bata bestearen gibeletik datozkion bitartean.

Kattalin Landaburu da kontakizun honen protagonista, hemezortzi urteko Ipar Euskal Herriko gazte bat da, eta beste sei neska gazterekin batera lehen aldiz aterako da herritik atzerrira, Alemaniara hain zuzen ere: urtebeterako alemanezko klaseak hartzera. Euskal Herritik kanpo bizituz sumatutako bakartasuna agerian dago eleberri poetiko honetan, eta bertan hizkuntzarekin dituen arazoek eta inkomunikazio egoerek bere bakarrizketetara bultzatuko dute Kattalin, eta horretaz gainera, igandero hutsik egin gabe Alemaniara joan aitzin lehengusuak oparitutako egunerokoan idatziko du. Istorioa aitzina joanen da barne-bakarrizketen, tartekako elkarrizketen eta iganderokoaren bidez, eta Kattalin pixkanaka aleman hizkuntzaz jabetuko da. Kantu leun baten moduan, erdia erabat ulertu gabe eta beste erdia irudikatuz Goetheren lau urtaroak deskubrituko ditu, eta era berean Alemaniako bere lau urtaroak idatzi, gainera: Kattalinek alemaniarrak gehiago ezagutuko ditu, lagun berriak egin, eta horien artean lagun min bat ere bai, bere lehen amodioa. Amodiozko istorio bat baino gehiago da; izan ere, beharbada zerbait gehiago dela ere sentituko duzu, auskalo!

Ainara Maia Urroz

BELASKOENEA 5. maila

BABESTU GURE PLANETA...

HOR BIZI GARA ETA

Belaskoenea ikastetxeko ikasleak gara, 5.A gelako ikasleak hain zuzen ere. Gure hondartzetan dauden plastikozko hondakin guztiak Ikusita, hurrengo proiektua egitea erabaki dugu.

Gure proiektuaren hasiera, arrantzatzeko sare bat birsortzea izan da. Hainbat plastiko erabili ditugu arrainak sortzeko eta eskola mailan beste ikasle guztiei itsasoetan dagoen hondakin guztia erakusteko, sare hau erabili dugu. Sarea amaitzerakoan, ikusgai egongo da eskolako sarreran.

Bestalde, proiektuaren bigarren zatia abestiaren sorkuntza izan da. Hortaz aparte, ostegunetako hamaiketakoa plastikorik gabe ekartzea proposatu dugu gela mailan, urtarriletik aurrera eskola guztiak parte hartzera gonbidatuz. Besteei plastikoaren erabilpena murrizteko, gure proiektuan parte hartzera animatu ditugu.

Azken finean planetaren eta ekosistemen zainketa bermatzea nahi dugu, plastikoaren erabilera murriztuz eta egoera honen berri ohartuz. Horrela guztion artean parte hartu eta mundua pixka bat gehiago zaindu dezakegu.

Denborapasak

7 Hitz: Kanpamenduan

M	Y	A	J	Z	D	C	R	S	Z	M	L	E	P
V	X	M	M	R	D	Z	K	H	U	E	B	K	F
F	K	L	S	I	K	A	N	R	K	A	E	Q	D
D	I	I	T	U	P	R	V	G	A	P	L	I	V
X	D	N	N	L	Z	T	W	D	N	O	T	Q	I
R	N	T	S	Y	M	A	Z	F	P	S	K	G	N
J	D	E	A	A	N	G	C	E	A	P	X	O	T
I	F	R	V	Q	M	I	J	J	N	O	N	K	S
S	A	N	L	I	V	N	E	H	D	L	C	R	E
U	X	A	L	E	I	A	M	T	E	O	J	W	K
Q	O	Q	S	P	C	W	L	X	N	A	T	G	T
S	I	I	A	I	I	T	H	W	D	K	H	O	U
X	F	A	M	O	T	X	I	L	A	L	M	U	V
P	Z	I	A	M	Z	L	X	R	G	H	W	M	H

sua, linterna, intsektu, kanpandenda, pospoloak, motxila, zartagina

	7				3			6
	5	3		1		4	7	2
							5	
9			5				6	
2		5		8	9		1	4
6			2	3	4		9	
			1					
7		6			2	1		
					8			

Euskaraz, Irunen barrena

Izengoitiak

Oyartzuarrak: Arrikalariyak.

Lezotarrak: Zatarjaliak.

Irundarrak: Itzontziyak, Berritsuak.

Ondarribitarrak: Orpozikiñak.

Irungo Birasotarrak: Dantzariyak eta Kantariyak.

Donostiarrak: Iriyen aixkiriak.

Irungo Kateako S.R.A. andereari jasoa (1959-X-11).
(El Bidasoa, 1960-III-18)

Iturria: Nikolas Alzola Gerediaga
Euskaraz, Irunen barrena

TOKI ALAI DBH2

HONDARRIBIKO EUSKAL GIROTZE BARNETEGIA

Urriaren 7an Hondarribiko Euskal Girotze Barnetegira joan ginen lau egun pasatzera.

Iritsi ginenean, Natalia eta Jon monitoreak ezagutu genituen. Barnetegira nola iritsi ginen grabatu zuten. Ondoren, maletak izkina batean utzi eta barnetegiko funtzionamendua azaldu ziguten. Egunero erronka bat bete behar genuela esan zuten; lehenengo eguneko erronka, soka bat erabiliz bihurkin bat kantinplora batean sartzea izan zen. Jarraian, maletak logeletara igo eta oheak egin genituen.

Arratsaldean hondartzara joan ginen; bertan, elkar ezagutzeko joko batzuk egin genituen. Barnetegira itzuli ginenean, ogitartekoa hartu eta denbora librea izan genuen. Ondoren, hizkuntzekin lotutako joko batzuk egin genituen, eta bukatzeko, egun hartako ebaluazioa egin genuen.

Bigarren egunean, goizean, bizkartzainaren jokoarekin hasi ginen. Gero, altxor ezkutua egin genuen eta opari gisa txokolatezko txanponak eman zizkiguten.

Bazkaldu ondoren "txutxunpeta" jolasa egin genuen; eskuan globo bat geneukan eta puzten ari zen bitartean galdera batzuk erantzun behar genituen. Jolasa bukatuta denbora librea izan genuen, eta merienda jaten ari ginen bitartean, barkoz bidaia bat egingo genuela esan ziguten. Barkuan ibiltzea asko gustatu zitzaigun; eskerrak itsasoa bare zegoela!! Eta jardunaldia amaitzeko, egunaren ebaluazioa bete genuen.

Hirugarren egunean beldurrezko film bat grabatu genuen. Grabatzen ari ginela, benetako sustoa bizi izan genuen; komunetik pertsona bat munstroz mozorrotuta atera zen!!

Arratsaldean gurinezko galletak egin genituen. Plastilinarekin ere ibili ginen, animaliak egiten. Bukatutakoan, ogitartekoa hartu eta denbora librea izan genuen. Berriro lanean, monitoreek gutako bat deskribatzen zuten; gu hiru taldetan banatuta geunden eta asmatzen saiatu behar ginen. Sari moduan sugusak eman zizkiguten. Eta betiko moduan, eguneko ebaluazioa osatu genuen.

Azken egunean, Hondarribiko alde zaharrera joan ginen. Bidea begiak estalita egin genuen, itsuak bagina bezala. Alde zaharrera iritsi ginenean "Hi selfie" programan bezala jolastu ginen; mapa batean adierazitako tokietara joan eta argazki bat egin behar genuen. Goizeko buelta amaituta, bazkaltzera joan ginen.

Arratsaldean, aurreko egunean egindako galletak eman zizkiguten, eta lau egun hauetan ateratako argazkiak eta guk grabatutako filma ikusi genituen. Berriro ere eguneko ebaluazioa egin genuen, eta oraingoan, lehenengo eguneko ebaluazioarekin alderatu genuen. Argi ikusi zen talde bezala asko elkartu ginela!!

Eta maletak autobusean sartuta, Irunera itzuli ginen.

ZE ONDO PASA GENUEN!! ETA ZE JATORRAK MONITOREAK!!

LEIRE AGUIRREZABALA eta ITSASO LECUONA

TALDEA: 2.C

GazteARTEan zerbitzua berriro martxan jarri da gazte irundarrei udako ekintzak proposatzeko

Gazteartean zerbitzuak uztaileko hilabetean zehar egingo diren ekintzak aurkeztu ditu. Normaltasun berriaren testuinguruan, Gazteartean zerbitzua martxan jarri da berriro ere. Uztaileko hilabeterako antolatu diren ekintza guztietan parte hartu ahal izateko aurretiazko izen-ematea egitea ezinbestekoa izango da. Hortaz gain, Covid-19aren zabalpena ekiditeko neurri guztiak hartzeaz gainera, momentuko egoeraren arabera ekintzak moldatu, egokitu edo bertan behera gelditu ahalko dira osasun agintariek zehaztutako neurriak errespetatzeko.

GazteARTEan programaren barnean uztaileko hilabeterako hamar ekintza proposamen aurkeztu dira. Ekintza guztiak aire zabalean egingo dira eta 10 pertsonek parte hartu ahalko dute gehienez zerbitzuak antolatutako ekintza bakoitzean. Gel hidroalkoholikoa eskura izateaz gainera, pertsonen arteko segurtasun distantzia errespetatzea eta maskaren erabilera egokia egitea ezinbestekoa izango da. Ekintza guztiak aire zabalean egingo direnez, eguraldiak ekintzen garapena baldintzatu dezakeela kontutan hartu beharko da.

Rebeca González Irungo Udaleko Gazteria arloko ordezkariak azaldu duenez, "ekintza hauen bitartez hiriko gazte eta hezitzaileen arteko harremana berreskuratu nahi da". Era honetan, aurreko hilabeteetako bizipenak partekatzeaz gainera, gazteek gertatutakoaren inguruan ausnartzea bultzatu nahi da. Gainera, antolatutako ekintzen bitartez datozen hilabeteetara begira jarraitu beharko diren segurtasun neurriak ezagutzeko eta barneratzeko aukera izango dute gazte irundarrek.

"Ekintza hauen bitartez hiriko gazte eta hezitzaileen arteko harremana berreskuratu nahi da"
Rebeca González, Irungo Udaleko Gazteria arloko ordezkaria

Uztailerako proposamenak
GazteARTEan zerbitzutik uztaileko hilabeterako proposatutako ekintzen artean, Aitzondo ur-jauzira zein San Martzial mendira irteerak egingo dira, Ficoban egongo den zirku italiarra ikusteko irteera Endarlatzara bizikleta irteera, Ginkana, ur jolasak edo San Martzial-Txingudi eremuko igerilekuetara irteerak egiteaz gainera. Irteerak antolatzeaz gainera, toalla diseinatzeko edo margo artistikoen tailerrak egingo dira uztaileko hilabetean zehar.

Izen ematea egiteko urratsak
Ekintzetan izena emateko epea ekintza egiten de eguneko eguerdiko 12:00etan amaituko da. Izen-ematea egiteko, gazteek Irungo Martindozenea Gaztelekuaren webgunean aurkituko duten izen-emate orria bete beharko dute. Orria bete ostean, gazteleku@irun.org helbide elektronikora edota 690 706 471 zenbakira WhatsApp aplikazioaren bitartez bidali beharko da. Izen-ematea Gaztelekuko hezitzaileen konfirmazioa jasotzerakoan konfirmatuko da.

Konfinamenduko parte-hartzeari eutsiz
GazteARTEan zerbitzutik proposatutako ekintzak konfinamenduan zehar Gazteria arloak sare sozialen bitartez proposatutako ekintzei jarraipena emateko helburua dute. Aurkeztutako aurrez aurreko hamar jarduerez gainera, uztaileko hilabete osoan zehar Gazteria arlotik gazte irundarrei zuzenean eragiteko proposamen berriak luzatuko dira, gazteen eskaera, interesak eta zalantzak ezagutzea ahalbidetuko dutenak. Proposamen horiek galdetegiak eta antzeko bestelako inkestekin. Antolatutako ekintza guztien informazioa www.irun.org/gazteleku webgunean, 690 706 471 telefono zenbakira deituz eta Instagram-eko @gazteleku_irun kontuan aurkitu daitezke.

irun
www.irun.org/igazte
gazte
informazioa

- Aurrez aurre: Irungo CBA liburutegi berrian
- Telefonoz: 943 50 54 44 / 943 50 54 40
- Posta elektronikoz: igazte@irun.org
- Webean: www.irun.org/igazte
- WhatsApp bidez: 607 771 173

Eurodesk - Europa

Gazteen mugikortasunerako informazioa eskaintzen du. Hauek nabarmentzen dira: prestakuntzarako aukerak eta Europako batzordeko hainbat erakundetan praktika egiteko aukera. Orain Eurodesk-en 2020ko uztailerako prestatutako buletina kontsultatzeko aukera duzu.

Eta har ezazu gogoan aukera hauek eta gehiago aurkituko dituzula webgunean: www.eurodesk.es

Eurodesk Espainian zure kontsulta guztiak erantzuteko eta zuzen zalantzak argitzeko prest gaude posta elektroniko honetan: eurodesk@injuve.es

Udako DYA ikastaroak Donostian

Lehen Sorospenetako ikastaroa: Uztailaren 6tik 17ra - (09:00etatik 12:00etara, astelehenetik ostiralera) eta uztailaren 20tik 30era (09:30etatik 13:00etara, astelehenetik ostiralera).

Ikastaro honen matrikulak 120 euroko kostu izango du. Gainera, hala nahi duten ikasleek Sorospen Titulua eskura dezakete kurtso amaieran egiten diren kalifikazio probak gaindituz.

Bihotz-biriken suspertzea eta KDA/DESA ekipoen erabilera: uztailak 6 eta 8 (16:00etatik 20:00etara, astelehena eta asteazkena) eta uztailak 11 eta 18 (larunbatak, 09:00etatik 13:00etara). Ikastaroaren izena emateko 90 euro ordaindu beharko dira.

Lekua: DYA (Baratzategi k. - Intxaurrondo - Donostia)

Izen emateak eta informazio gehiago: deitu 943 46 46 22ra edo sartu www.DYAgipuzkoa.com webgunean.

Familia irundarrentzako kontziliaziorako aparteko laguntzak

Udaleko udalekurik ez denez izango, uztailean eta abuztuan zailtasunak dituzten familiei zuzendutako ekimena da. Arau gabeko prestakunta eta irakaskuntza-jarduerak eta kirol-jarduera ludiko ez-lehiakorra.
Norentzat: 2008-2016 bitartean jaiotako haurren familientzat.
Eskaera egiteko epea: irailak 11.

Lan-eskaintza: Ingeleseko irakaslea behar da

Oso ingeles-maila ona duzu?

Haurrentzako hezkuntzaren munduan lan egitea atsegin duzu?

Ikasturtea: 2020/2021.

Ordutegia: Arratsaldez.
Betekizunak: Ingeles maila altua eta jariakortasuna izatea. Hortaz gain, haurrentzako hezkuntzaren mundua gustukoa izatea.
Harremanetarako:
678 660 065 (Marta) irun@kidsandus.es

Youtube bidez zuzeneko hitzaldiak

Youtube KZguneaTIC bidez zuzeneko hitzaldi berri batzuk antolatu dira, goizez zein arratsaldez. Zuzeneko hitzaldietan parte hartzeko interesa duten pertsonek interneterako konexioa baino ez dute behar, YouTubeko ekitaldirako sarrera librea izango baita (ez da beharrezkoa aldez aurretik izena ematea).

Uztaileko urruneko hitzaldien plangintza honako hau da:

Uztailak 14, 11:00-12:00: Zure diru-zorroa Smartphonean (euskaraz).

Uztailak 16, 18:00-19:00: Zure ordenagailua biruz eta bestelako mehatxuetatik babestu (gaztelaniaz).

Uztailak 21, 18:00-19:00: Ezagutu Streaming plataformak (euskaraz).

Uztailak 23, 11:00-12:00: Android sekreturik gabe (gaztelaniaz).

Uztailak 28, 11:00-12:00: Azken gailu teknologikoak ezagutu (euskaraz).

Uztailak 30, 18:00-19:00: Murgildu errealitate birtual eta areagotuan (gaztelaniaz).

Zuzeneko urrutiko hitzaldien zerbitzuari buruzko informazio guztia eskuragarri duzu KZ guneko webgunean aurkituko duzu.

BIDE LAGUNTZA D A Y ELKARTEA

DYA GIPUZKOA



Uztailak

11

Mahai-ingurua: "Sukaldaritza eta historia"

Zer: Gorka Txapartegi sukaldariarekin eta Mertxe Urteaga arkeologoaren mahai-ingurua, erakusketako komisario Luisa Lopez moderatzailearekin batera.

Non: Oiasso Erromatar Museoan.

Ordua: 19:00etan.

Sarrera: Doakoa.

Oharra: 30 lagunentzako lekua egongo da eta maskara erabiltzea nahitaezkoa izango da.

12ra arte

Erakusketa: "Sistiaga Mosso"

Zer: José Antonio Sistiaga obrak 1959tik 2019ra.

Non: Menchu Gal erakusketa aretoan.

Ordutegia: Asteartetik larunbatera 18:00etatik 21:00etara eta igande eta jaiegunetan 11:30etatik 13:30etara.

Sarera: Doan.

19ra arte

Erakusketa: "Emozioak paperean"

Zer: Emozioak paperean. San Pedro eta San Martzial (1906-2020) erkausketa bisitatzeko aukera.

Non: Amaia Kultur Zentroko erakusketa aretoan.

Ordutegia: Asteartetik larunbatera (18:00etatik 21:00etara) eta igande eta jaiegunetan (11:30etatik 13:30etara).

Sarrera: Librea.

Ostiral eta larunbatetan

Irugurutzetako mehatzari esparrura tren bidaia

Zer: Irugurutzetako mehatzari eremua ezagutzeko bisita gidatua.

Irteera: Oiasso Erromatar Museotik.
Ordutegia: 11:00etan eta 17:00etan.
Sarrerak: Helduek 5,5 euro, 6 eta 14 urteko haurrek 3,85 euro eta 6 urtetik beherako haurrentzat doan.

Erreserbak: 943 63 93 53 telefono zenbakira deituz.

Iraupena: Ordu eta erdi.

Larunbat goizetan

Azoka Txikia

Zer: Tokiko ekoizle eta handizkako saltzaileen azoka.

Non: Urdanibia plazan eta Ospitale Zaharraren inguruan.

Ordua: 8:30etatik 13:30etara.

Oharra: Udaltzaingoa eta Babes Zibileko agenteek hiru sarrera puntuak eta segurtasun arauak betetzen direla kontrolatuko dute.

Igandeetan

Santa Elena Nekropolira bisita

Zer: Santa Elena ermita, nekropolia eta museoa bisitatzeko aukera.

Irteera: Oiasso Erromatar Museoaren sarreran.

Ordua: 11:00etan.

Sarrerak: Helduek 5,5 euro, 6 eta 14 urteko haurrek 3,85 euro eta 6 urtetik beherako haurrentzat doan.

Erreserbak: 943 63 93 53 telefono zenbakira deituz.

Denbora-pasen emaitzak

5	3	9	1	6	4	7
6	9	8	2	7	3	5
4	8	5	7	1	2	6
3	5	6	8	9	7	1
1	7	2	3	4	5	9
9	4	1	6	5	8	2
8	6	3	9	2	1	4

JECA
JECA
JECA

Trajeak lehen ~~200€~~

orain

99,99€

Serapio Mujika,Kalea 5, Irun - 943 613932